

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA, ARGIAKO ZUZENDARIA

«Garai interesgarriak bizi ditugu, kazetari izateko»

GARAI GOGOR hauetan indartzen du bere zentzua kazetaritzak: Pertsonen bizi baldintzak eta bizitzak jokoan daudenean inoiz baino beharrezkoagoa da sakon informatzea, gauzen zergatia arakatzea. Garai interesgarriak dira, beraz, kazetariontzat. Garai gogorak elitetik kanpoko gainerako herritarrontzat.

Zorionez, momentu latzenetan ateratzen dugu askotan pertsonok barruan dugun onena. Eta orduan esaten dugu “uf, eskerrak!” Eskerrak trantze edo ataka horien aurrean jauzi egin dugun. 2013ko ataka hauek azpimarratu nahi nituzke, eta emandako jauziak eskertu:

- “Kazetaria naizela!” oihuak ofizioa duintasunarekin lotu zuen apirileko egunsenti hartan. Donostiako Herri Harresiko gertakizun haietatik ARGIAko lankideak izandako erreakzioa azpimarratuko nuke: kazetarien kaiola bihurtutako Boulevardreko kioskotik salto egin eta albistearen muinera sartu zen. Eskerrak salto egin zuen! Horri esker lortu zuen gertakari haien testigantza, dokumentu inportanteena grabatzea (nazioartera zabaldu zen bideoa).

- Erraustegiaren itxiera ARGIAren azalera ekarri genuen. Eskerrak prozesu osoari jarraipena egin genion besteak beste Zero Zabor blogean. Bertan xehetu genituen erraustegi proiektuaren informazioak, datuak eta ondorioak.

- Eskerrak! sentitzen dugu kazetariok Interneteko itsaso zabalaren aurrean. Mezudun botilatxoak bota eta inoiz ARGIA irakurri ez zuten milaka pertsonengana iristen direla ohartu gara (horietako asko, gainera gazteak dira). *Beranduegi* eta *Damutuko Zaitzuten*en moduko programekin esperimentatzeko eta ze arrai! primeran pasatzeko aitzakia ere ematen digu Internetek.



- Epe ertainera eskerrak! esango dugula konfiantza dugu. Izan ere, murrizketen eta itomen testuinguruan sortutako Hekimen elkarte ari da administrazioko erakundeekin elkarriketan. Eta zorionez, erakundeen eta herri ekimeneko hedabideen artean lantzeko elkarlan bideak ikusten dira.

- Eta mila esker! ezagunena beste ataka batek eragin du Euskal Herrian. Konponbiderako blokeoaren aurrean eta giza eskubideetan, ataka estu horien aurrean, alderdien gehiengoak aurreranzko pausoa eman zuten urtariraren 11n. Ea bada Madrilek jarritako ataka hura gaingitu ondoren begi aurrean dugun joko-zelai zabalean bidea egiten asmatzen dugun.

“Gaurko eguna ere ataka baten aurrean sortu zen. Argia Sariak sortzea aukera bat izan zen, batzen gaituenetik elkartzeko”

- Zenbat eskertzen diren jende desberdina lotzeko gaitasuna duten pertsonak, pitzadura handiak direnean. Euskarazko komunikazio proiektu baten bueltan jende diferen-

tea batzea, gaitasun hori zuten aurten agurtu gaituzten Joxan Lizarribar eta Ramon Maria Labaienek. Eskerrik asko biei, emandako guztiagatik.

- Ataka txikiak egunero daude enpresan. Batek halako patxada goxo bat, eta esker bero bat sentitzen du goizero erredakziora joan, eta Hego Amerikako Aimara herriak bezala norberaren arbasoak atzean ez, baizik eta aurrean dituela ikustean. 25 urteotan ARGIA izandako hiru zuzendariak hantxe aurrean ikustean, eredu-ko kazetari lanetan. Agian izango da karguei benetan duten pisua baizik ez diegulako ematen, eta agian urteetako esperientzia metatzea delako gure aberastasun handietako bat.

- Bukatzeko, pozgarria da gogoratzea gaurko eguna bera ere ataka baten aurrean sortu zela. Garai hartako Eusko Jaurlaritzaren eta ARGIAren arteko harremanak gaiztotuta zeuden eta Argia Sariak sortzea aukera bat izan zen, batzen gaituenetik elkartzeko. 25 urte geroago, gorabeherak gorabehera, alde ederren gaude denok ere harremanetan! Beraz, gaurko azken eskerrak hemen bildu zarenontzat dira. Beste 25 urtean izan dadila Argia Sariak, euskal kulturaren eragile nagusiek festa giroan elkartzeko duten egun bat.

Garai gogor bezain interesgarriotan zentzu bete hartzen duelako, egin dezagun kazetaritza. Kalitatezko kazetaritza, kazetaritza independentea, kazetaritza eraginkorra. Gure egungo babesle, laguntzaile eta harpidunek eskertzen digute. Eta bizi-rauteko behar beharrezkoak zaizkigun babesle, laguntzaile eta harpidedun gehiago lortzeko balio dezala! Hala espero! ■

Argia Sariak banatu aurretik emandako hitzaldiaren zatiak dira honakoak. Hitzaldi osoa webgunean aurkituko duzu.